

BARNE ARAUBIDEAREN ERREGELAMENDUA

2000.eko azaroaren 3ko 133. NAOn argitaratua

"Arau orokor gisa, Olaztiko Udaleko kide guztiei aitortzen zaie udal informaziorako bidea izateko eskubidea beren karguan aritzerakoan. Horretarako, ondoko arau hauek ezarri dira, eskubidea erabili beharrez:

1.-Jende guztiarendako ez diren agiriak eta informazioa eskatzea.

2.-Informaziorako bidea nola izan.

3.-Udal bulegoetarako sarbidea nola izan.

4.-Idazkariaren ordutegia, jendearendako eta udal taldeendako.

5.-Indarraldi proposamena.

1.-Jende guztiarendako ez diren agiriak eta informazioa

eskatzeta.

1. Agirietarako eta informaziorako bidea izateko arau orokorra, alkateari eskaria idatziz bideratzea izanen da.

2. Eskaria aurkeztu ondoko bost egun naturaletan ebatzi behar du alkateak, eta ezezkoa baldin bada, ebazpen arrazoitua izanen da.

3. Administrazioaren isiltasuna izanez gero, eskatzailearen aldeko ondorioak izanen ditu, bidea eman zaiola ulertuko baita.

4. Zenbait kasutan, espedienteetarako bidea zuzena da, alkatearen baimena tarteko izan gabe:

-Udalaren sarrera eta irteera erregistroa, horrek ez badakar ere erregistraturiko agirietarako bide zuzena. Gisa horretara bermaturik gelditzen da oposizioko zinegotziek Udalean sar-atera egin duten agirien berri izatea erabat.

-Alkatearen ebazpen liburua.

Zinegotziak batzordeburu direnean:

-Zinegotzi guztiek bide zuzena izanen dute, zer organo kolegiatutan edo zer batzordetan parte hartzen ohi duten, informazioa edo dokumentazioa haiexetan nahiz osoko bilkuran eztabaidatu beharreko gaien gainekoak badira. Horrek esan nahi du eskura dezaketen informazioa dela organo kolegiatu horien gai zerrendan agertzen diren espedienteen gainekoa, ez besterik.

-Zinegotzi guztiek bide zuzena izan dezakete Udalaren edozein organok ematen dituen ebazpen eta erabakietara.

2.-Informaziorako bidea nola izan.

1. Bulego orokorretako mostradorea lantokia eta jendea hartzeko lekua denez, hartan udal langileak eta informazio eske etortzen direnak nahiz udal zerbitzuren bat hartzen dutenak baizik ez dira egoten ahalko.

2. Agiriak udal funtzionarioak emanen ditu, bulego orduetan, eta itzuli, halaberean itzuliko zaizkio, lanaldi berean.

3. Eskatzaileak hartu-agiria sinatu beharko du.

4. Agiria ez da bulegoetatik atera ahal izanen, salbuespenez ez bada eta alkateak oniritzita.

5. Oraingoz, agiriak kontsultatzeko tokia fotokopiagailuaren sala izanen da.

6. Eskatutako agiria 100 orri baino gehiagokoa bada, kopianenda batera eramanez dute, eta gastuak informazioa eskatu duenaren kontura izanen dira.

7. Partikularrek, taldeek, elkarteek etabarrek udal taldeei egiten dizkieten kontsultak edo haiekiko bilkurak, behar diren bulegoetan egiten dira, edo bilkura aretoan, jende kopuruak horretara behartzen badu.

3.-Udal bulegoetara sarbidea nola izan.

1. Alkatearen, idazkariaren eta ekonomilariaren bulegoetara, horiek bertan daudenean baizik ez dute sarbidea izanen zinegotziek. Horrela bermaturik geldituko da bertan diren agirien eta bertan gordetzen diren espedienteen konfidentziasuna.

2. Gainerako bulegoetan, bertan lan egin behar duten langileak daudenean eta baimena ematen dutenean baizik ez dute sarbidea izanen zinegotziek.

3. Bulego orduetatik kanpora eta Udaletxeko giltza alkateak eta honek eskuordetzen dituen lagunek eduki behar dutenez (batzordeburuak, udal langileren bat, etab.), batzordeak edo osoko bilkurak ez diren bilerak egiteko, eskaria egiten zaio alkateari, bileraren arrazoia adieraziz.

4. Alkateak baimena emanen die udal taldeei, bulego orduetatik kanpora haien lan bilera egin ahal izan dezaten, bere bulegoan edo esleitzen dien aretoan, bakarrik nahiz beste talde edo erakunde batzuekin. Baimen hori ez da zabalduko Udalaren beste bulego batzuetara, eta ez da erabiliko administrazioaren agiriatarako bidea izateko. Alkatearen baimena lortu duen udal taldeak bileraren biharamunean itzuli beharko dio Udaletxeko giltza, hari nahiz idazkariari.

4.-Idazkariaren ordutegia, jendearendako eta udal taldeendako.

Jendearendako ordutegia: astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna, 12:00etatik 14:30etara.

Udal taldeendako ordutegia: astelehena eta asteazkena, 11:00etatik 12:00etara. Batzordeburuek, beren eginkizunetan ari direnean, udal teknikarienganako bide zuzena izanen dute.

5.-Indarraldi proposamena.

Legegintzaldi honetan aritzeko tresna izan dadin proposatu da, baina berrikusi edo zabaldu ahal izanen da eguneroko praktikak eta funtzionamendu onak komenigarri egiten badute, baita deuseztatu ere, hau prestatzera bultzatu duten inguruabarrak desagertzen badira eta errespetua eta zentzu ona nagusitzen badira.